



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko otsailaren 25a

26. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzekoa. Osoko zuzenketa (3. or.).
- Foru Lege proiektua, ezartzen duena nola banatu transferentzia arrunten bidez toki-erakundeek Nafarroako tributueta parte hartzeko duten funtsa. Osoko zuzenketa (4. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legea aldatzen duena. Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztu du (6. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Komunitateko ikastetxe publikoetan erlijioa irakasleen lanpostuei eustea bermatzen duena. Navarra Suma talde parlamentarioak aurkeztu du (9. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Interpelazioa, klima-aldaketari aurre egiteko Nafarroako etorkizuneko energia ereduari buruzkoa. Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak aurkeztu du (11. or.).
- Interpelazioa, Nafarroako Lurralde Estrategiari buruzkoa. María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak aurkeztu du (11. or.).
- Interpelazioa, 0-3 urteko Haur Hezkuntzaren esparruko politika orokorrari buruzkoa. Jorge Aguirre Oviedo jaunak aurkeztu du (12. or.).
- Interpelazioa, enplegu plana onesteko jarduketei buruzkoa. Interpelazioa erretiratzea (12. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eremu publikotik amiantoa kentzeko protokoloa presta dezan. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu du (13. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da banku-entitateen bezeroendako arreta presentzialerako gutxieneko zerbitzuak arautu ditzan. Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu du (14. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da administrazio publikoan enpleguaren banaketa sustatzeko foru dekretu bat argitara dezan. Mikel Asiáin Torres jaunak aurkeztu du (15. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Gobernua premia dezala Larrialdietako eta Estualdietako Medikuntzaren espezialitate berria sortzera. Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztu du (16. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, Oltza Zendea eta Ollaranen zuntz optikoa hedatzeari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (18. or.).

—Galdera, “Girando por Navarra/Bira Nafarroan Barna” programari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (19. or.).

—Galdera, abenduan eta urtarrilean izandako uholde larriek eragindako kalteengatik nekazariei eman beharreko kalteordainei buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (19. or.).

—Galdera, Nafarroako Orkestra Sinfonikoari buruzkoa. Carlos Mena Blasco jaunak egin du (20. or.).

—Galdera, Administrazioan telelana arautzeko foru dekretuari buruzkoa. Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak egin du (21. or.).

—Galdera, Erorien eraikina urbanizatzeko Iruñeko Udalak aurkeztutako proiektuari buruzkoa. Galdera erretiratzea (22. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoa hautatzea. Hautagaia aldarrikatzea (23. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzekoa.

OSOKO ZUZENKETA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Foru Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proiektuari aurkezturiko osoko zuzenketa. Proiektu hori 2022ko urtarrilaren 26ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

OSOKO ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Proiektuaren osoko zuzenketa, hura Nafarroako Gobernuari itzultzea proposatzen duena.

Zioak: Nafarroako Foru Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua atzera pausoa da formatan legearen aldaketaren beraren muinean.

Formei dagokienez, kontuan izanda arau honek udal eta kontzejuentzat duen indarra eta garrantzia, lehentasuna eman zaio testuak presaka prestatu eta izapidetzeari, eta hala dago jasota txosten teknikoetako batzuetan; diru kopuru handiak aplikatu dira zioen azalpen teknikorik gabe, eta arauaren erabaki garrantzitsuak zioen azalpen juridikorik gabe. Lege testu hau kontuz berrikusi behar zatekeen, eta behar bezain zehatz osatu, behar adinako mailan.

Muinari dagokionez, goizetik gauera Hiriburutza Agiria bertan behera utzi da bat-batean, eta politikoki ez gaude ados horrekin. Bere garaian abal tekniko eman zitzaion txosten sendo baten bidez. Edonor harri eta lur gelditzen da ikustean Gobernuari eusten dion alderdi gehiengodunak hauteskunde programako puntu nagusietako bat

aldatu duela hain zuzen ere oposizioko alderdieta-ko batekin negoziatu eta gero, legeari aurka egin ez diezaion.

Funtsei esleitutako zenbatekoek ere ez dute abalik. Esaterako, Kohesio Funtzari 16.000.000 euro esleitu zaizkio txosten tekniko baten abalik gabe, eta horrek agerian uzten du baldintza politiko bat betetzeko hornitu dela.

Transferentzia Arrunten Funtzaren igoera ez da izan behar adinakoa, toki ogasunek Foru Ogasunaren tributua bilketan parte hartzea baita funts horren helburua. Gobernuaren datuen arabera, Foru Ogasunak % 15 handitu du tributua bilketa, eta egiaztatu ahal dugu nola berriz ere zekenkeriaz jardun nahi duen udalekin, tributuen % 15eko igoera hori ez ezik, aurrekontu orokorren guztizko zenbatekoaren igoera ere ukatuz; izan ere, aurrekontuak % 8,2 igo dira, eta funtserako % 7,6ko igoera proposatu dute.

Tuterako Hiriri ez zaio eman Hiriburutza Agiririk, zeinari Navarra Sumak 5.600.000 euroko balorazioa egiten baitio, Erriberako gainerakoei Tuterak ematen dizkien zerbitzuei buruz egindako azterketaren arabera. Alderdi Sozialistak bete gabeko beste hauteskunde-konpromiso bat da hori.

Nafarroako Gobernuak udalekin eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioekin ez du batera harremanik izan, eta hori, dirua udalena eta udalontzat izanda. Navarra Sumarekin ere ez du harremanik izan, udal askotan gobernatzen duen eta udalen kopuru handiengan dagoen alderdia izanda.

Ez du bermatu udalerrri eta kontzejuak abiapuntu izatea 2021eko esleipena + KPIa + 2. Parlamentuak begiratu behar du toki erakunde bakar batek ez dezan jaso lehengo finantzaketa sistemarekin jasoko lukeena baino gutxiago.

Hurrengo urteetarako, lurralde-koehesioaren funtsari dagokionez, KPlaren igoera soila aplikatu nahi da. Uste dugu KPl+2 igotzea bermatu behar dela.

Tamalez, gobernu honek, jakin arren ez zela beteko funtsaren lehenbiziko ordainketa, ez du trantsizioko edo konturako ordainketa-sistemarik ezarri. Arduragabekeria iruditzen zaigu oraindik ere toki erakundeek ez jakitea ez zenbat ez noiz jasoko duten. Jakin badakigu toki erakunde ba-

tzuek departamentura jo dutela argibide eske eta ez dietela erantzun.

Azaldutako arrazoi horiek guztiak aski eta sobera dira proiektua itzultzeko, alde batera utzita irizpide politikoek eusten dietela lege honi eta Parlamentuak horrela ezin diola abalik eman. Parla-mentuak behar du lege honen funtsezko aldaketa guztiak txosten tekniko eta juridiko zorrotz eta sakonetan bermatuta egotea.

Foru Lege proiektua, ezartzen duena nola banatu transferentzia arrunten bidez toki-erakundeek Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsa.

OSOKO ZUZENKETA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin toki-erakundeek Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsa transferentzia arrunten bidez nola banatu ezartzen duen Foru Lege proiektuari aurkezturiko osoko zuzenketa. Proiektu hori 2022ko urtarrilaren 26ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

OSOKO ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Proiektuaren osoko zuzenketa, hura Nafarroako Gobernuari itzultzea proposatzen duena.

Zioak: Toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banaketa ezartzen dituen Foru Lege proiektua ez dago Nafarroako udal eta kontzejuek merezi dutenaren pare.

Ikusi da akatsak daudela testuan eta formule-tako aldagaien identifikazioan; zenbatekoak eta banaketa-indizeak batzuk bestearekin nahasten direla; are zehaztasunik eza ere kontzeptu edo aldagai batzuk kalkulatzeko moduez eta entitate bakoitzari dagokion zenbatekoaz. Ikusi da testua presaka dagoela idatzita. Horren ondorioz, edozein lege-testutan beharrezkoa den xehetasun-

maila falta da, eta hori, bere horretan, nahikoa baino gehiagoko motiboa da halako lege bat, entitate finantzatuentzat hainbestearainoko munta eta eraginekoa dena, Nafarroako Gobernuari itzulia izateko.

Aurkeztua eta aldarrikatua izan den moduan, toki entitateen finantzaketa inoiz ez bezala bermatzen omen duen legea litzateke (halaxe dio Nafarroako Gobernuak). Egia da egonkortu egiten dela funts arruntaren eta horren etorkizuneko gehikuntzen guztizko zenbatekoa, bai eta berme-klausula ere (lehenagoko legeek jada egiten zuten hori). Baina ezerk ez du bermatzen toki-entitate bakoitzak jasoko duen berariazko finantzaketaren egonkortasuna, ezen entitate bakoitzaren parte-hartzea ez da bakarrik banaketa-sistemetan zeinek propioak dituen aldagaien baitan egonen, baizik eta, halaber, gainerako aldagaiak eta guztien multzoak pairatzen duten aldaketaren araberako aldagai propio horiek duten aldaketaren baitan ere.

Ereduaren ondorioz berme-klausulak entitate-multzo kopurutsu batengan eragina izanen duela-rik, batzuegan % 100ekoa eta beste batzuegan % 98koa, eta Nafarroako hiriburuari bere finantzaketa murriztuko zaionez, ez dirudi egokiena denik finantza-askitasunaz mintzatzea, inoizko Nafarroako aurrekontu orokorrik hedatsuena daukan urtean (horrelaxe baiteritzo Nafarroako Gobernuak berak). Bestalde, bermeari estaldura emateko finantzaketa aterako da nondik eta formula aplikatuz funts gehiago jaso litzaketen udal-errien ekarpena murriztetik. Alegia, azken batean

ereduak aurreko sistemaren elementu negatiboak errepikatuko ditu; hain zuzen ere, aldaketa plante-arazi duten horietan.

Eredu-aldaketa justifikatzeko, Kontuen Ganberak eginiko analisiak baliatzen dira (2019ko txostena, toki-ogasunen funtsaren banaketari buruzkoa), baina ezikusia egiten diote aipatu txostenak jasotzen zituen premisetako bati: hots, toki entitateen parte-hartzearekin aldatzea sistema. Hori betetzetik urrun, ezkutatu egin dute hori, eta horri loturiko gogoetetatik landa aritu dira, aurrekontuak egiteko orduan, finantzaketa arrunteko iturburu nagusietako (ez baldin bada nagusia) bati buruzko aurreikuspenen zalan-zagarritasunarekin.

Banaketa-sistema berria abiatzen da NUPek prestaturikoa den lehenagoko banaketa-formula bat eguneratuzetik. Formula hori bere garaian prestatu zen Iruñearen aldagaien datuak kontuan hartu gabe, jotzen baitzen hala jokatzuz gero banaketa desitxuratu egin zitekeela. Alabaina, 2019, 2020an eta 2021ean Iruña eta bertako datuak barne hartuak izan dira formula hori aplikatzean, zeinaren definizioan ez baitziren aintzat hartu. Desitxuratze larria da, baina balio izan du mezu gisa jendearenganatzeko ezen Iruña "eredu"aren gaitetik kobratzen ari dela berme-klausula aplikatzearen ondorioz.

Aldarrikatzen da Finantzaketa Orokorreko Funtsaren banaketa oinarrituta dagoela NUPen azterlan batean, baina argitu behar da ezen banaketaren osagai bakar bat, gastu-indizea, dagoela aipatu azterlanean oinarritua; ez, ordea, ahalmen fiskala osatzen duten aldagaiak, ez eta haztapena ere. Ezta montepioko, zerbitzuetako eta lurraldekohezioko funtsak banatzeko irizpideak ere. Azken batean, Nafarroako Gobernuari egoztekoa zaion haztapena alde batera utzirik (gastu-indizearen pisua % 75ekoa da), guztizko funts arruntaren % 57,21ek baizik ez du heldulekua NUPen azterlanean eta zuzeneko lotura udal zerbitzu publikoen gastu globalarekin. Esan daiteke teknikotasun batzuen moztarpean irizpide nabarmenki politikoaren saldo ezkutatu dutela: lehenbizikoa, Iruñearen Hiriburutza Agiriaren ezabapena: Nafarroako Alderdi Sozialistaren hautesprogramako puntu nagusietako bat izanda, iritziz aldatu da justu negoziazioa itxi duenean oposizioko alderdietako batekin, ez dadin legearen aurka jar.

Transferentzia Arruntan Funtsaren igoera ez da behar adinakoa izan, funts hori lotuta dagoelako toki ogasunek Foru Ogasunaren tributuen bilketan parte hartzearekin. Gobernuaren datuen arabera, Foru Ogasunak % 15 handitu du tributuen bilketa, eta egiaztatu ahal dugu nola berriz ere zekenkeriaz jardun nahi duen udalekin, tributuen % 15eko igoera hori ez ezik, aurrekontu orokorren guztizko zenbatekoaren igoera ere ukatuz; izan ere, aurrekontuak % 8,2 igo dira, eta funtserako % 7,6ko igoera proposatu dute.

Tuterako Hiriari ez zaio eman Hiriburutza Agiririk, zeinari Navarra Sumak 5.600.000 euroko balorazioa egiten baitio, Erriberako gainerakoei Tuterak ematen dizkien zerbitzuei buruz egindako azterketaren arabera. Alderdi Sozialistak bete gabeko beste hauteskunde-konpromiso bat da hori.

Nafarroako Gobernuak udalekin eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioekin ez du batera harremanik izan, eta hori, dirua udalena eta udalentsat izanda. Navarra Sumarekin ere ez du harremanik izan, udal askotan gobernatzen duen eta udalen kopuru handienean dagoen alderdia izanda.

Ez du bermatu udalerrri eta kontzejuek abiapuntu izatea 2021eko esleipena + KPIa + 2. Parla-mentuak begiratu behar du toki erakunde bakar batek ez dezan jaso lehenago finantzaketa sistemarekin jasoko lukeena baino gutxiago.

Hurrengo urteetarako, lurralde-kohezioko funtsari dagokionez, KPIaren igoera soilik aplikatu nahi da. Uste dugu KPIa+2 igotzea izan beharko dela bermea.

Tamalez, gobernu honek, jakin arren ez zela beteko funtsaren lehenbiziko ordainketa, ez du trantsizioko edo konturako ordainketa-sistematik ezarri. Arduragabekeria iruditzen zaigu oraindik ere toki erakundeek ez jakitea ez zenbat ez noiz jasoko duten. Jakin badakigu toki erakunde batzuek departamentura jo dutela argibide eske eta ez dietela erantzun.

Azaldutako arrazoi horiek guztiak aski eta sobera dira proiektua itzultzeko, alde batera utzita irizpide politikoek eusten dietela lege honi eta Parla-mentuak horrela ezin diola abalik eman. Parla-mentuak behar du lege honen funtsezko aldaketa guztiak txosten tekniko eta juridiko zorrotz eta sakonetan bermatuta egotea.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Adolfo Araiz Flamarique jaunak foru lege proposamen bat aurkeztu du, Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legea aldatzen duena, eta eskatu du irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin. (10-22/PRO-00004)

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrarekin adostu ondoren, hona ERABAKIA:

1. Agintzea Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

3. Foru lege proposamen hori irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetzea.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2022ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Lege proposamena, Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Nafarroan mezenasgoaren araubide fiskala Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legean dago jasota, eta lege horrek, irabazi-asmorik gabeko entitateen araubide fiskal propioa erregulatzeaz gain, pizgarri fiskalen sorta bat ezartzen du zenbait proiektu sozialetarako. Ez dago mezenasgo jarduerari aplikatzeko berariazko araudirik, ordea, partikularrek mezenasgoan jarduten dutenean ahalegin pribatuak interes orokorreko jardueretara bideratzen laguntzeko, ingurumenaren babesa xede duten irabazi-asmorik gabeko entitateek finantzaketa iturri pribatuetatik baliabideak lor ditzaten sustatze aldera.

Konpromiso sozialeko proiektuei aplikatzekoak zaizkien pizgarri fiskalak arautzen dituen maiatzaren 29ko 18/2013 Foru Legeak hamargarren xedapen gehigarria erantsi zion Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legeari. Xedapen gehigarri horren testu indarduna Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko abenduaren 23ko 29/2019 Foru Legeak onetsi zuen.

Horregatik guztiagatik, beharrezkotzat jotzen da mezenasgoaren araubidea erreformatzea, kasu honetan hura ingurumen mezenasgora zabaltzeko, sektore horretako irabazi-asmorik gabeko entitateei behar duten indarra ematen laguntze aldera, garapen ekonomikorako eta kohesio sozialerako ardatz nagusietakoa baita sektore hori, eta behar adinako protagonismoa emateko gizarte zibilari. Entitate horien egitekoa funtsezkoa da, gizarte ekintza bezalako arloetan

ez ezik, baita ingurumenekoetan ere, batez ere klima aldaketaren eta energia-trantsizioaren tesuinguruan. Pizgarri fiskalak ingurumen mezenasgora zabaltze hori, ordea, ez da ulertu behar baliabide publikoak murriztuko dituen elementu gisa. Izan ere, pizgarri gehiago jartzea eta ondorioz ingurumena babestu eta defendatzeko jardueretan gizarteak ekarpen handiagoa egitea onuragarria izanen da inondik ere BPGari eta enpleguari begira, eta baliabide fiskal berriak sorraziko ditu.

Ildo horretan, foru lege proposamen honetan hamahirugarren xedapen gehigarri berria erantsi nahi zaio Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legeari. Horrela ingurumen mezenasgoaren arloko araubidea ezarriko da, foru lege beraren hirugarren xedapen gehigarrian jada mezenasgo sozialerako jaso denaren antzekoa.

Artikulu bakarra. Hamahirugarren xedapen gehigarria eranstea Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legeari.

Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legeari xedapen gehigarri bat gehitzen zaio, testu hau izanen duena:

«Hamahirugarren xedapen gehigarria. Ingurumen mezenasgorako pizgarri fiskalak.

1. Dohaintzak jasotzen dituzten erakunde onuradunek xedapen gehigarri honetan aurreikusitako araubidearen aintzatespena jaso badute ingurumen arloan eskuduna den departamentuarengandik, dohaintza horiek xedapen gehigarri honetan ezarritako zerga-onurak izanen dituzte.

2. Horri dagokionez, entitate onuraduntzat joko dira honako baldintza hauek betetzen dituztenak:

a) Irabazi-asmorik gabeko entitateak izatea. Halakotzat joko dira, betiere, arloan eskuduna den ministerioaren gobernuz kanpoko erakundeen erregistroan inskribaturik dauden ingurumen arloko fundazio, elkarte eta gobernuz kanpoko erakundeak, Nafarroako Kooperatiben Erregistroan inskribaturik dauden energiarekin lotutako kontsumo kooperatibak eta aurreko guztien federazioak eta elkarteak.

b) Beren xedeen artean jasota edukitzea naturaren kontserbazioa eta ingurumenaren babesa edo/eta ingurumen hezkuntza, ingurumen arloko boluntariora, klima aldaketaren aurkako borroka eta energia-trantsizioa, eta, horregatik, inskribaturik egotea Nafarroako Foru Komunitateko Elkartean, Fundazioen eta Lanbide Elkargoen Erregistroan.

c) Nafarroan jardun izana b) letran aipatutako arloetakoren batean, 3. apartatuan aipatzen den eskaeraren aurreko azken 4 urteetan. Beti uste izanen da entitate batek Nafarroan azken lau urteetan jardun duela baldin eta ekitaldi horietan guztietan Nafarroako administrazio publikoetatik dirulaguntzaren bat jaso badu.

d) Gutxienez errenta eta diru-sarreraren ehuneko 70 (horiek lortzeko gastuak kendu ondoren) interes orokorreko helburuetara bideratzea eta gainerakoa ondare-zuzkidura edo erreserbak handitzera bideratzea, eskuratu eta gehienez 4 urteko epean.

e) Dirulaguntza publikoak hartzen dituzten entitatei ezarritako gardentasun betebeharrak betetzea.

3. Entitate interesdunek xedapen gehigarri honetan aurreikusitako araubidea aplikatzeko eskatu beharko diote ingurumen arloan eskudun den departamentuari, departamentu horretako titularrak onetsiko duten ereduari jarraituz. Eskaerarekin batera, kasua bada, 2. apartatuan azaldutako baldintzak betetzen direla frogatzeko agiriak aurkeztuko dituzte.

Ez da baldintza horiek betetzen direla frogatzeko agiririk aurkeztu beharko haietako edozein betetzen dela ondorioztatzen bada administrazio publiko baten menpeko erregistro bateko inskripzioetik, Nafarroako administrazio publikoek emandako dirulaguntzetatik edo lehenagoko prozedura edo izapideren batean administrazio publiko bati aurkeztutako dokumentaziotik; horrelakoetan nahikoa izanen da zer prozedura edo erregistro den adieraztea.

4. Xedapen gehigarri honetan ezarritako araubidea lortu eta gero, dohaintzen onuradun diren entitateek ingurumen arloan eskudun den departamentuari eskatu beharko diote, hurrengo ekitaldiko lehen zortzi hilabeteetan, araubide horri eusteko, departamentu horretako titularrak onetsiko duen eskaera ereduari jarraituz. Gainera, epe horretan entitateen ordezkariak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute, entitateak 2. apartatuan ezarritako baldintzak betetzen jarraitzen duela dioena, eta entitatearen kontuak erantsi beharko dituzte, salbu eta jada aurkeztu bazaizkio zergen arloan eskumena duen departamentuari, zerga araudia betez.

Ingurumen arloan eskumena duen departamentuari dagokio egiaztatzea ezarritako betekizunak betetzen direla, entitate eskatzaileek zer esparrutan diharduten kontuan hartuta.

5. Ingurumen arloan eskumena duen departamentuaren barnean, eskudun den zuzendaritza nagusiko titularrak ebartziko ditu 3. eta 4. apartatuetan aipatutako eskaerak.

Pertsona horiexei dagokie xedapen gehigarri honetan ezarritako araubidea erreboka dadila ebaztea, baldintzaren bat betetzen ez dela egiaztatuz gero.

Ebazpen hori hiru hilabeteko epean eman eta jakinarazi beharko da. Gehieneko epea igarotzen bada eskaera aurkeztu duten entitate interesdunei berariazko ebazpen legitimorik jakinarazi gabe, eskaera Administrazioaren isiltasunaren bidez baietsizat joko da.

Hiru hilabeteko epea izanen da, gehienez, araubidea onartu duen ebazpenaren errebokaziorako prozedura ebazteko eta ebazpen hori jakinarazteko. Gehieneko epea igarotzen bada berariazko ebazpenik jakinarazi gabe, prozedura iraungi egingen da.

6. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboek dohaintzak egiten dizkietenean entitate onuradunei, zergaren kuotatik kendu ahalko dute "inter vivos" dohaintza ezeztazekin, huts eta soilen bidez emandako diru kopuruaren lehen 150 euroen ehuneko 80, bai eta 2. apartatuan aipatutako entitateekin egindako lankidetzaren hitzarmenen itzalpean haiek finantzatzeko edo haien jarduerak finantzatzeko ordaindutako diru kopuruaren ehuneko bera ere. 150 euro baino gehiagoko zenbatekoei ehuneko 35eko kenkaria aplikatzen ahalko zaie. Subjektu pasibo bakoitzeko eta zergaldi bakoitzeko aplikatuko da 150 euroko muga.

Doako zerbitzu-prestazioen kasuan, kenkariaren oinarria izanen da egindako gastuen kostua, irabazi-marjina kontuan hartu gabe.

Kenkariaren oinarria konputatu egingen da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 64.1 artikuluan aipatzen den mugaren ondorioetarako.

7. Sozietateen gaineko zergaren subjektu pasiboek, entitate onuradunei dohaintzak egin edo diru kopuruak ordaintzen dizkietenean aurreko apartatuan ezarritako baldintza eta helburuekin, zerga onura hauek izanen dituzte:

a) Dohaintzan emandako zenbatekoak partida kengarrizat joko dituzte zerga oinarriaren kalkuluan.

b) Gainera, dohaintzan emandako zenbatekoen ehuneko 20ko kenkaria aplikatu ahalko dute zergaren kuota likidoan.

Zerga oinarrian aplikatutako kenkariaren zenbatekoak ezin izanen du gainditu honako hauetatik handiena:

– Kenkari hori aplikatu aurretik eta, halakorik bada, foru lege honen 37., 42. eta 47. artikuluetako kenkariak aplikatu aurretik zerga oinarriak izan duen zenbatekoaren ehuneko 30.

– Negozio zifraren zenbateko garbiaren milako 3.

Bestalde, kuotaren murriztapena sozietateen gaineko zergaren araudian ezarritakoarekin bat aplikatuko da eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko 26/2016 Foru Legearen 67.4 artikuluan ezarritako mugaren ondorioetarako zenbatuko da.

8. Xedapen gehigarri honetan ezarritako zerga onurak bateraezinak izanen dira Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legean ezarritako gainerako zerga onurekin, alegia, ezin izanen dira zenbateko beretarako aplikatu.

9. Zerga onurak aplikatu ahal izateko, entitate onuradunek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Ziurtagirien bidez frogatzea lankidetzaren hitzarmenen itzalpean ordaindutako diru kopuruak edo egindako dohaintzak egiazkoak direla eta babesera bildutako entitateak edo, hala denean, jarduerak finantzatzea dutela helburu.

b) Emandako ziurtagirien edukia Zerga Administrazioari jakinaraztea, zerga araudian ezarritako eruedetan eta epeetan.

10. Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Legeak artikulua honen 2.b) apartatuan aipatutako helburuei begira lehenesten diren mezenasgo jardueren zerrenda ezarri ahalko du, bai eta entitate onuradunen zerrenda ere. Jarduera eta entitate horiei dagokienez, Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Legeak bost ehuneko-puntu igo ahaliko ditu, gehienez, artikulua honetako 6. eta 7.b) apartatuetan ezarritako kenkariaren ehunekoak eta mugak.

11. Urte bakoitza amaitu baino lehen, ingurumen arloan eskumena duen departamentuak xedapen gehigarri honetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten entitate onuradunen zerrenda bidaliko dio Zerga Administrazioari.

Azken xedapena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, baina 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako sortuko ditu ondorioak.

Foru Lege proposamena, Nafarroako Komunitateko ikastetxe publikoetan erlijioiko irakasleen lanpostuei eustea bermatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Navarra Suma talde parlamentarioak Nafarroako Komunitateko ikastetxe publikoetan erlijioiko irakasleen lanpostuei eustea bermatzen duen Foru Lege proposamena aurkeztu du (10-22/PRO-00005).

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako hau ERABAKIDA:

1. Agintzea Nafarroako Komunitateko ikastetxe publikoetan erlijioiko irakasleen lanpostuei eustea bermatzen duen Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2022ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Lege proposamena, Nafarroako Komunitateko ikastetxe publikoetan erlijioiko irakasleen lanpostuei eustea bermatzen duena

HITZAURREA

Erljioiko irakasleen araubide juridikoaren antolamendua erregulazio gai izan da hezkuntzari buruz egin diren legeetan.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 27/2006 Lege Organikoak hirugarren xedapen gehigarrian ezarri zuen ezen funtzionario irakasleen kidegoetakoak ez ziren eta ikastetxe publikoetan erlijioiko irakasten zituzten irakasleek administrazio eskudunekiko lan-kontratazioko erregimenean jardunen zutela, Langileen Estatutuari jarraikiz. Ezarri zuen, halaber, irakasle horiek lanpostuan sartzeko, berdintasuna, merezimendua eta gaitasuna hartuko zirela irizpide objektibo gisa, eta hezkuntza-maila berean bitarteko irakasleei zegozkien ordainsariak jasoko zituztela irakasle horiek.

Ekainaren 1eko 696/2007 Errege Dekretuak arautu egin zuen erlijioiko irakasleen lan-harremana, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren hirugarren xedapen gehigarriak aurreikusten zuena. Errege dekretu horretan arautu ziren erlijioa irakasteko bete beharreko baldintzak, irakasleen kontratazio mugagabea, lanaldi osoko edo partzialeko kontratu modalitatea, destinoa eskuratzeko kontuan hartu behar ziren gutxieneko balorazio irizpide objektiboak eta kontratua azkentzeko arrazoiak. Halaber, xedapen gehigarri bakarrean ezarri zenez, irakasle funtzionarioen kidegoetakoak ez ziren erlijioiko irakasleak, errege dekretuak indarra hartzean kontraturik bazeuden, besterik gabe igaroko ziren lan-harreman mugagabea izatera errege dekretuan bertan ezarritako baldintzekin, salbu eta lan-harremanaren titularra ordeztzeko kontraturik zeudenak.

Legeria nazionala osatuz, Hezkuntza Departamentuak uztailaren 5eko 65/2013 Foru Agindua bidez arautu zuen gure Foru Komunitatean lan-kontratu mugagabea duten erlijio katolikoko irakasleei destinoak esleitzeko sistema.

Lan-kontratu mugagabearekin Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan, Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan erlijioa ematen duten irakasle horiei beren irakasgaiaren ordu-karga murrizten ari zaie urteetan zehar egiten ari diren arau aldaketan ondorioz. Azken aldaketa abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoak (LOMLOE) egin du. Haren ondorioz baliteke Nafarroan legezko gutxieneke murriztea irakasgaiaren ordutegia, eta are gehiago laburtzea irakasleek dituzten lanaldiak eta urteetan zehar bereganatu dituzten lan eskubideak.

Horregatik, lege honen xedea da legezko arau baten aplikazioaren ondorioz mugagabeak diren lanpostu horiei eustea, Nafarroako ikastetxeetan urte asko lanean egin dituzten langile batzuen irakaskuntza-karga errespetatuz, aipatu ingurubarrak arrisku nabarmena sortu baitie beren lanpostuak galtzeko edo lanpostuetan jarraitu arren kolokako egoeran gelditzeko.

Artikulu bakarra.

Hezkuntzari buruzko Lege Organikoa aldatzen duen abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoa aplikatzearen ondorioz Nafarroan erlijio irakasgaiaren ordu-beharrak aldatzen badira, horrek ezin izanen die ekarri lanpostua galtzerik, ezta

beren kontratuetakozko portzentajeak murrizterik ere, foru lege honek indarra hartzen duen egunean Nafarroan lan-kontratu mugagabea duten erlijio irakasleei.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Indarrik gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari

aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, eta 2022-2023 ikasturtetik aurrera aplikatuko da.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Interpelazioa, klima-aldaketari aurre egiteko Nafarroako etorkizuneko energia ereduari buruzkoa.

ANTONIO JAVIER LECUMBERRI URABAYEN JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak aurkezturiko interpelazioa, klima-aldaketari aurre egiteko Nafarroako etorkizuneko energia ereduari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Javier Lecumberri Urabayen jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, klima-aldaketari aurre egiteko Nafarroako etorkizuneko energia ereduari buruzko honako interpelazio hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Iruñean, 2022ko otsailaren 15ean

Foru parlamentaria: Javier Lecumberri Urabayen

Interpelazioa, Nafarroako Lurralde Estrategiari buruzkoa.

MARÍA ARANZAZU BIURRUN URPEGUI ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak aurkezturiko interpelazioa, Nafarroako Lurralde Estrategiari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Arantza Biurrun Urpegui andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Nafarroako Lurralde Estrategiari buruzko interpelazioa aurkezten dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Iruñean, 2022ko otsailaren 15ean

Foru parlamentaria: Arantza Biurrun Urpegui

Interpelazioa, 0-3 urteko Haur Hezkuntzaren esparruko politika orokorrari buruzkoa.

JORGE AGUIRRE OVIEDO JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Aguirre Oviedo jaunak aurkezturiko interpelazioa, 0-3 urteko Haur Hezkuntzaren esparruko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Jorge Aguirre Oviedo jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Interpelazioa, 3 urteko Haur Hezkuntzaren esparruko politika orokorrari buruzkoa.

Iruñean, 2022ko otsailaren 15ean

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

Interpelazioa, enplegu plana onesteko jarduketei buruzkoa.

INTERPELAZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkezturiko enplegu plana onesteko jarduketei buruzko interpelazioa erretiratu izanaz. Interpelazioa 2021eko

otsailaren 5eko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-21/ITP-00014).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eremu publikotik amiantoa kentzeko protokola presta dezan.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita eremu publikotik amiantoa kentzeko protokola presta dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osasun Batzordean eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eremu publikotik amiantoa kentzeko protokolo bat presta dezan.

Zioen azalpena

Amiantoarekiko kontaktu hutsa, berez, ez da arriskutsua osasunarentzat, baina arrisku bihur daiteke urteetan barrena ondorio larriak ekarrita, hura osatzen duten zuntzak airera askatu ondoren arnasten ditugunean. Hori gertatzen da amiantoa erabiltzen denean, esaterako, amiantoa duen materiala puskatzen denean, kentzeko asmoz, materiala oso zahartuta eta hondatuta dagoenean.

Amiantoa kendu behar da, soil-soilik, material hori kentzen berezitatea dagoen enpresa kreditatu

baten bitartez, zeinak eramanen baitu hondakin mota horretarako baimenduta dagoen hondakin-degi batera edo, bestela, biltegitratzeko baimena duten instalazioetara (geroago hondakinak handik baimendutako hondakin-degi batera eramanen dituzte)

Amiantoa baimenik gabe erabiltzea eta biltegitratzea osasunerako eta ingurumenerako arriskuen iturri izateaz ez da zalantzarik gelditzen, baina oraindik ere behin baino gehiagotan amiantoa kendu eta utzi egiten da eremu publikoan edo naturaguneetan, edozein oinezkoen eskura. Hori osasun publikorako arrisku itzela da. Material toxiko hori berehala kendu ahal izateko saihestezina da Administrazioak premiazko neurriak hartzea.

Amiantoaren biktimen elkarrekin behin eta berriz agertu dute beren kezka amiantoaren azternak agertzen direlako oinezkoen eskura, inolako aurreneurrik gabe, eta administrazioen arteko koordinazio eta protokolo ezagatik, material toxiko hori kentzeari berehala ekiteko.

Hori dela-eta, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak ondoko erabaki-proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, gehienez ere hilabeteko epean eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin elkarlanean amiantoa kentzeko protokolo bat presta dezan, material hori eremu publikoan uzten den kasuetarako.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, informazio kanpainak bultzatuz herritarrak kontzientziatzeko amiantoa behar den bermerik gabe erabiltzeak eta biltegitratzeak osasun publikorako eta ingurumenerako dakartzan arriskuez, bai eta hondakin horiek eremu publikoan, naturaguneetan edo baimendu gabeko beste edonon uztea legez kanpoko izateaz ere.

Iruñean, 2022ko otsailaren 14an

Eleduna: Ramón Alzórriz Goñi

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da banku-entitateen bezeroendako arreta presentzialerako gutxieneko zerbitzuak arautu ditzan.

ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Baztarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita banku-entitateen bezeroendako arreta presentzialerako gutxieneko zerbitzuak arautu ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Azken asteotan, Carlos San Juan Valentziako pentsiodunak sinadurak biltzeko ekintza bat gartu du, "Arreta gizatiarra banketxeetan" izenarekin, hedabideetan oihartzun handia izan duena. Hori dela eta, finantza arloko bazterketa digitalaren fenomenoaren agenda politikoan zein hedabideetakoan ezarri da.

Finantza arloko bazterketaren fenomenoaren batez ere adindunek pairatzen dute eta duela urte gutxi gertatzen ari da, pixkanaka, baina bereziki azken bi urteotan, 2020ko COVID-19aren osasun krisiaren ondorioz eta banku eta aurrezki kuttetako enplegu-erregulazioko espedienteengatik, murrizketa are handiagoak izan dira banketxeetako bulegoetan herritarrei arreta presentziala ematerakoan.

Horren guztiaren ondorioz, informazioaren eta komunikazioaren teknologietara iristeko zailtasuna duten populazio talde batzuei —hala nola adindunei, zaurgarritasun egoeran dauden pertsonen edo arrakala digital ukazina pairatzen duten

kolektiboek— nabarmen murriztu zaizkie arreta pertsonala edukitzeko aukerak, edo zuzenean baztertuta geratu dira arreta mota horretatik. Zailtasunak areagotu egiten dira landa eremuan bizi direnentzat: banku-bulego batzuk desagertzea, finantza zerbitzuetarako toki batera joan behar izatea egun eta ordu jakin batzuetan eta bidaia horietarako zailtasunak.

Espainiako Gobernuak, Pedro Sánchez buru duela, joan den azaroan, argi berdea eman zion Bezeroarentzako arreta-zerbitzuei buruzko Legearen aurreproiektuari, zeinak arautu nahi duen, beste alderdi batzuen artean, oinarritzko zerbitzuen enpresek arreta pertsonala eskaini beharko dutela egunero, hogeita lau orduetan, eta arreta zerbitzuetara iristea bermatu behar dietela zaurgarritasuna duten kontsumitzaileei, esate baterako, adindunei edo desgaitasuna dutenei, tratu berdintasunaren, diskriminazio-ezaren eta irisgarritasun unibertsalaren printzipioei jarraikiz.

Halaber, lehen lehendakariorde eta Ekonomia Gaietarako eta Aldaketa Digitalerako ministro Nadia Calviño banku-sektorearekin bildu da, neurriak ezar ditzaten finantza zerbitzuetara iristea bermatze aldera adindunei eta banka elektronikora iristeko zailtasunak dituzten beste kolektibo batzuei.

Garapen teknologikoa baliatu behar dugun lanabes handia da, ekonomia lehiakorragoa egiteko eta enpresa proiektuen iraunkortasuna eta efizientzia errazteko; baina funtsezkoa da, era berean, bezeroen beharrezan eta gogoei begiratzeko eta haien eskariei erantzutea.

Nafarroako Gobernuak, gizartearen dagoen arrakala digitalaren jakitun, abian jarri zuen Inklusio eta Gaikuntza Digitalaren 2021-2025 aldiko Plana, helburu duena arrakala hori eguneroko bizitzan murrizteari ekitea, prestakuntza eta lanaren kalitatea eta enplegarritasuna hobetzea.

Iritzi publikoak Carlos San Juanen ekimenari emandako erantzun guztiz positiboak banku-entitateen bezero eta herritar eta bezero askoren gogobetetasun eza islatzen du. Komenigarria litzateke finantza-entitateek hori kontuan hartu eta azkartuko balute finantza-inklusioa sustatzeko neurrien ezarpena, hori ezarri baitzuten bankaren konpromiso sozial eta jasangarria sendotzeko

beren protokolo estrategikoan, Espainiako Bankuen Elkarte eta Espainiako Aurrezki Kutxen Konfederazioa (CECA) erakundeen artean sinatua.

Orobat, azpimarratu behar da gai honetan Estatuko zein Nafarroako administrazio publikoek duten egitekoa. Zentzu horretan, lanean jarraitu behar da sozialki arduratsua den jarduera ekonomikoa arautu eta sustatzeko eta herritarren eskubideak bermatzeko.

Horregatik guztiagatik, sozialisten talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuak premiatzen du, banku-entitateen bezeroendako arreta presentzialerako gutxieneko zerbitzuak arautu ditzan, adindunei eta herritarren beste kolektibo batzuei arreta irisgarri eta kalitatezkoa bermatzera bideratuak.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du, arreta presentzialerako,

batez ere landa eremuan, pizgarriak eman diezazkien gure erkidegoan lan egiten duten banku-entitateei, finantza-zerbitzuen kontratazio publikoan klausula sozialak erabiliz.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du, banku-entitateekiko lankidetzak formulak garatu ditzan Nafarroako Udala eta Kontzejuen Federazioarekin batera, herritarrengandik gertuago dauden finantza-zerbitzuak ematea errazteko.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du, Nafarroako Gobernuak onetsitako Inklusio eta Gaikuntza Digitalaren 2021-2025 aldiko Plana garatzen jarrai dezan, azpimarra berezia jarritz beharizan gehien dituzten pertsonen eguneroko bizitzarako gaikuntza digitalean aurrera egiteko beharrean.

Iruñean, 2022ko otsailaren 15ean

Eleduna: Ramón Alzórriz Goñi

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da administrazio publikoan enpleguaren banaketa sustatzeko foru dekretu bat argitara dezan.

MIKEL ASIÁIN TORRES JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiáin Torres jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita administrazio publikoan enpleguaren banaketa sustatzeko foru dekretu bat argitara dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Asiain Torresek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Nafarroako Gobernuaren ibilbide-orriaren helburu nagusietako bat enplegu osoa izan behar da, batez ere COVID-19aren pandemiatik sortutako krisi sozial eta ekonomikoaren ondoren.

2008ko krisi sakonak gure gizartean ireki zituen zauri larriak nekez gaingitzen ari ginenean, pandemiak berriro eragin du enpleguan, nahiz eta, zorionez, datu positiboan egon, epidemiaren aurreko indizeak berreskuratzen ari garela adierazten dutenak.

Hala eta guztiz ere, langabeziak gure erkidegoan eragiten jarraitzen du, bereziki sektore ahulenen artean: gazteria, emakumeak, migrazioak, adindunak eta abar.

Hain sakona den gai horretan, Geroa Baikoen iritziz ezinbestekoa da erakundeak, Nafarroako Gobernua eta Nafarroako Enplegu Zerbitzua, esaterako, lankidetzan aritzea giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak partekatzeke, ahalbidetze aldera enplegu osoa erraztuko eta bultzatuko duten arau berriak aplikatzea.

Kalitateari lehentasuna emanez eta, zer esanik ez, prekarizazioa bazter utzita, baina jende guztia laneratzeko xedearekin, beste herrialde batzutan erabili diren formulen bidez, baita Estatuan ere: bere administrazioan edo enpresa pribatuekiko akordioen bidez.

Lau eguneko lanaldia behin eta berriz eztabaidatzen ari da lan eta gizarte arlo batzutan, hain zuzen ere enpleguaren banaketa handiagoa lortzeko. Helburu horretara iritsi bitartean, uste dugu urrats alternatiboak egin daitezkeela, tarte-koak, enplegua lagunduko dutenak administrazio publikoan nola enpresa pribatuan, berriz ere lankidetzaren publiko-pribatuaren eskutik.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, foru dekretu bat argitara dezan administrazio publikoan enpleguaren banaketa sustatzeko. Horretarako, Nafarroako administrazio publikoetako langile funtzionarioen lanaldiaren murrizketa arautzen duen apirilaren 4ko 27/2011 Foru Dekretuan eta Nafarroako Administrazio Publikoetan enplegua banatzeko neurriak ezartzen dituen maiatzaren 14ko 39/2014 Foru Dekretuan jasotzen diren gai batzuk bateratu egingo ditu.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, hedatze kanpainak egin dituzan funtzionarioen artean sustatzeko hartutako neurrietan parte-hartzea, enpleguaren banaketa handiagoa lortzeko xedez.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, Nafarroako enpresa batzuekin adostu dituzan, esperientzia pilotu gisa, jardunean dauden langileendako hein batean ordaindutako baimenak ezartzea langabezia daudenekin ordeztuko, beste neurri batzuen artean sartuz baimenaldian gizarte kotizazioak mantentzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 16an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Gobernua premia dezala Larrialdietako eta Estualdietako Medikuntzaren espezialitate berria sortzera.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Espainiako Gobernua premia dezala Larrialdietako eta Estualdietako Medikuntzaren espezialitate berria sortzera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma (+) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osasun Batzordean eztabaidatzeko:

2019an Osasunaren Mundu Erakundeak estatu kide guztiei gomendioa egin zien Larrialdietako eta Estualdietako Medikuntzaren eta Erizaintzaren prestakuntza espezializatua garatzeko.

Larrialdietako eta Estualdietako Medikuntzaren espezialitate Europa Batasuneko 22 herrialdeetan eta munduko 100 baino gehiagotan aitortu dute.

Duela 10 urte baino gehiago lortu zuen beren sekzioarako Medikuntza Espezialisten Europako Bata-

sunaren (UEMS) aitorpena eta Larrialdietako eta Estualdietako Medikuntzaren curriculum europarraren onespena.

Espainiako Larrialdietako eta Estualdietako Elkartek (SEMES) 30 urte daramatza espezialitate hori babesten.

2002. Urtean Osasun Ministerioko lan talde tekniko bat sortu zen Larrialdietako eta Estualdietako espezialitatea sortzea aztertzeko. Espezialitate horrek urteetan zehar Osasuneko hainbat ministroren babesa jaso du, Alderdi Popularraren zein Espainiako Alderdi Sozialistaren aldetik, baina orain arte konpromiso horiek ez dira bete eta Larrialdietako eta Estualdietako Medikuntza ez da aitortu oinarrizko espezialitate gisa.

2013an Medikuen Elkargoen Elkartek (OMC) onetsi zuen Larrialdietako eta Estualdietako Medikuntzaren espezialitatea sortzea.

Espezialitatea legez besteko proposamentzat jo da Senatuan eta autonomia erkidego batzuetako gobernuetan.

Gainera, paradoxikoki Espainian espezialitatea ba dago 2016. Urteaz geroztik arlo militarrean, baina ez ordea zibilean.

Espainian larrialdietako osasun laguntza munta handikoa da Osasun Sistema Nazionalak herritarrei, oro har, eskaintzen dizkien prestazioetan.

Herritarrek garrantzia handikotzat jo dute eta jotzen dute larrialdiko laguntza. Hori oso modu deigarrian ikusarazi da pandemiako bi urte hauetan, behar bezala baloratu ezin izan diren osasun arazoengatik, larrialdiko zerbitzuek osasun arazoak baloratu dituztenean Oinarrizko Osasun Laguntza gainezka egotearen ondorioz, proba diagnostikoen atzerapenagatik, minbiziaren detekzio goiztiarreko programetan edo itxarote-zerrenden okerragotzea dela-eta. Larrialdietako eta estualdietako zerbitzuak, askotan, herritarrak osasun sistemara iristeko lehen sarrera izan dira.

Espezialitatearen aitorpen ezak ekarri du larrialdietako eta estualdietako zerbitzuan lan egiten duten profesionalen portzentaje nabarmen bat osasun zerbitzuetako beste jarduerara batera joa-

tea, zailago bihurtuz talentua erakarri eta atxikitzea, alegia, larrialdietako eta estualdietako arreta medikoak berezko dituen jardueretan prestatuta, trebatuta eta gaita dauden profesionalak.

Larrialdietako eta Estualdietako Medikuntzaren espezialitatea aitorturik ez egoteak galarazten du Osasun Sistema Nazionalaren larrialdietako eta estualdietako zerbitzuetan lan egiten duten profesional guztien prestakuntzaren homogeneotasuna, eta ez du bermatzen ere urtero izaten diren milioika ekintza medikoen uniformetasuna. Salbuespenezko egoera da, medikuntza espezializatuaren gainerako jardueran homogeneotasuna eta uniformetasuna badirelako.

Larrialdietako eta estualdietako medikuntzan badago jarduketa arlo espezifiko bat, hainbatetan erabiltzeko zailtasun handikoa. Prestakuntza programa espezifikoa dago, eta Europak oinarrizko espezialitate gisa aitortua du.

Gizarte zibila ordezkatzeko duten entitateek espezialitatea sortzea babestu dute, eta gomen-dioa espresuki jaso da 2015eko urtarrileko "Ospitale-larrialdiak: gaixoen eskubideak eta bermeak" izeneko txostenean eta, halaber, Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren 2015eko abuztuko txostenean.

Larrialdietako eta Estualdietako Medikuntzaren espezialitatea sortzeak bilatzen du pazientearen segurtasuna eta laguntzaren kalitatea hobetze Espainiako larrialdietako eta estualdietako arretan, zerbitzu horietako prestakuntza eta laguntza homogeneizatzea eta eta Europar Batasunean profesionalen zirkulazio askea ahalbidetzea.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernu premiatzen du, Espainiako Gobernu premia dezan Larrialdietako eta Estualdietako espezialitate berria sor dezala oinarrizko espezialitate gisa, Espainiako Osasun sistema Nazionalaren Espezialitate Medikoen Mapari gehituta.

Iruñean, 2022ko otsailaren 17an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

F saila:
GALDERAK

Galdera, Oltza Zendea eta Ollaranen zuntz optikoa hedatzeari buruzkoa.*ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkezturiko galdera, Oltza Zendea eta Ollaranen zuntz optikoa hedatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Ángel

Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten dio Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariari, idatziz erantzun dakion:

Oltza Zendeako eta Ollarango herri eta kontzejuetan zuntz optikoa hedatzen hasi dira, eta horretarako 70.000 eta 50.000 euroko inbertsioa egin dute hurrenez hurren. Ollarango eta Oltza Zendeako alkateek diotenez, Banda Zabalaren II. Plan Gidariaren harira bilerak egin zituzten Gobernuarekin eta Nasertic-ekin.

Zer dela-eta ez dira hedatze horiek sartu Nafarroako Gobernuaren Banda Zabalaren II. Plan Gidarian eta funts berekiekin egin behar izan diete aurre Foru Gobernuaren laguntzarik gabe?

Iruñean, 2022ko otsailaren 11n

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

Galdera, “Girando por Navarra/Bira Nafarroan Barna” programari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea “Girando por Navarra/Bira Nafarroan Barna” programari buruz Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

“Girando por Navarra/Bira Nafarroan Barna” programa dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

1. Zergatik da derrigorrezkoa udalerrientzat jarduerak barrualdeetan egitea?

2. Departamentuan jasota al dago kexak eta desadostasun-adierazpenak egon direla udalerrri eta kultur teknikarien aldetik?

3. Departamentuak ba al du asmorik eskakizun hori malgutu edo aldatzeko?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 14an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, abenduan eta urtarrilean izandako uholde larriek eragindako kalteengatik nekazariei eman beharreko kalteordainei buruzkoa.

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko galdera, abenduan eta urtarrilean izandako uholde larriek eragindako kalteengatik nekazariei eman beharreko kalteordainei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Abenduan eta urtarrilean uholde larriak izan ziren Nafarroako Foru Komunitatean, bertatik igarotzen diren zenbait ibaiek gainezka egin ondoren.

1.- Zer dela eta Gobernuak ez dizkie ordainduko nekazariei uholdeek eragindako kalte guztiak, Gobernuko lehendakariak konpromiso hori hartu bazuen ere?

2.- Bi hilabete pasa dira Gobernuko lehendakariak konpromiso hori hartu zuenetik. Premiazko

neurriez ari garela kontuan hartuta, zergatik ez da neurri zehatzik onetsi oraindik kaltetutako pertsonen kalte-ordainak emateko? Kalte guztiak ordainduko al zaizkie uztak aseguratuta dituzten nekazariei?

3.- Zergatik ez da betetzen Gobernuak lehen-dakariak emandako hitza, Agroseguroren polizen "letra txikia" aitzakiatzat hartuta uholdeek eragindako kalteak ez ordaintzeko? Uste duzu jokabide hori bidezkoa dela?

4.- Izan al duzu hartu-emanik autonomia-erki-degoetako arduradunekin jakiteko Gobernuaren laguntzen osagarririk ezarriko al duten?

Hala bada, zehaztu datak, norekin mintzatu zaren eta lortutako akordioak.

5.- Gobernuak berrikusiko al ditu Agroseguroren polizetan ezarritako baldintzak estaldurak handitu eta nekazariak babesgabe ez uzteko beraien ardurapekoak ez diren egoeretan?

6.- Izan daiteke aldea nekazariak eta abeltzainek pairatutako kalteengatik jasoko dituzten laguntzetan, beren ustiategiak dauden autonomia-erkidegoaren arabera? Hala bada, bidezkoa iruditzen al zaizu?

7.- Kexarik jaso al duzu Agroseguroren polizen estaldura faltagatik edo ibaiek gainezka egiten dutenerako estaldura-baldintzengatik? Hala bada, zehaztu eman den erantzuna.

Iruñean, 2022ko otsailaren 15ean

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

Galdera, Nafarroako Orkestra Sinfonikoari buruzkoa.

CARLOS MENA BLASCO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Orkestra Sinfonikoari buruz Carlos Mena Blasco jaunak aurkezturiko galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko foru parlamentari Carlos Mena Blasco jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Kultura eta Kiroleko kontseilariak eta Baluarte Fundazioaren zuzendari kudeatzaileak agerraldia egin zuten Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren egoeraz hitz egiteko. Horren ondotik, hau jakin nahi dut:

Galderaren testua:

– Zenbat bilera egin dituzte departamentuak edo Baluarte Fundazioaren zuzendari kudeatzaileak Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren eta Baluarte Fundazioko langile eta batzordeekin?

– Langileek eta Fundazioak ba al dute hitzarmen kolektiborik? Hala bada, helarazi ahal diguzue?

– Ba al da enpresa- eta laneko arriskuen prebentzio-batzordeak zuzendaritzari helarazitako txosten ofizialik, Barañaingo Auditorioak entseguetarako areto izateko dituen gabeziak xehakutzen dituenik? Hala bada, helarazi ahal diguzue?

Iruñean, 2022ko otsailaren 17an

Foru parlamentaria: Carlos Mena Blasco

Galdera, Administrazioan telelana arautzeko foru dekretuari buruzkoa.

ARANZAZU IZURDIAGA OSINAGA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Administrazioan telelana arautzeko foru dekretuari buruz Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak aurkezturiko galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Arantxa Izurdiaga Osinaga andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

2021Eko ekainaren 25ean, Nafarroako Gobernuak Administrazioan telelana arautzeko foru dekretuaren zirriborroa aurkeztu zuen, eta iragarri zuen berehala onetsiko zuela. Sei hilabete baino gehiago iragan direnean, Gobernuak ez du foru dekretua onetsi eta atzerapen horren arrazoiak berri ere ez da eman. Hori dela-eta, honako hau galdetzen diogu Gobernuari:

– Noiz onetsiko du Nafarroako Gobernuak Administrazioan telelana arautzeko foru dekretua?

– Zer dela-eta atzeratu da foru dekretuaren onespena?

– Dekretuaren testuan jaso al dira sindikatuen ordezkariak eginiko ekarpenak? Hala bada, zer ekarpen jaso dira?

– Zer baldintzatan arautuko da telelana?

Iruñean, 2022ko otsailaren 17an

Foru parlamentaria: Arantxa Izurdiaga Osinaga

Galdera, Erorien eraikina urbanizatzeko Iruñeko Udalak aurkeztutako proiektuari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Uxue Barkos Berruezo andreak aurkezturiko galdera erretiratu izanaz. Galdera Erorien eraikina urbanizatzeko Iruñeko Udalak aurkeztutako

proiektuari buruzkoa zen eta 2021eko irailaren 13ko 100. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-21/PES-00225).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoa hautatzea.

HAUTAGAIA ALDARRIKATZEA

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 114. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin 2022ko otsailaren 16ko Foru Araubideko Bartzordeak harturiko erabakia, zeinaren bidez Francisco Javier Vera Donazar jauna aldarrikatzen baita Nafarroako Foru Komunitateko Ararteko izateko hautagaia.

Iruñean, 2022ko otsailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias
